

MEDIKUAK PAZIENTEAREN NORTASUN-NAHASTEA EUSKARAZ DIAGNOSTIKATZEA POSIBLE DELA NABARMENDU DUTE ADITU BATZUEK AMERICAN JOURNAL OF PSYCHIATRY ALDIZKARIAN ARGITARATU DUTEN ARTIKULUAN

Artikuluak joan den abuztuan argitaratu zen eta horren egile dira: Naiara Ozamiz Etxebarria, Psikologian doktorea, eta Agurtzane Ortiz Jauregi, Jose Guimon Ugartechea eta Javier I. Escobar, Medikuntzan doktoreak.

Bertan, Psikiatriako paziente baten historia deskribatzen da. Pazientea Bilbotik gertu dagoen herri batekoa da, 24 urte ditu, ez du lanik, eta aurrekarien arabera: «Gogo-aldartearen eta antsietatearen sintomak ditu, suminkortasuna, erreferentziatzko ideiak, hutsunetsipena eta automutilazio-portaerak. Dioenez, arazoak ditu harreman egonkorak izateko eta abandonuaren beldurra du. Bulkadazko sexu-jokabideak eta elikadura-nahasteak ere izan ditu, eta bi bider ospitaleratu dute bere buruaz beste egiten saiatu ondoren».

Pazienteak, hala ere, bost bat urtez uko egin zien psikiatreek eta psikologoek gomendatzen zizkieten tratamenduei, ez baitzuen sinesten haien ikuspuntuan eta nahiago baitzituen sendabide naturalak edo naturaz gaindikoak. Herriaren garai bateko sinakeriei jarraikiz norbaitek «begizkoa» bota ziola uste zuen, eta horrexegatik zituela halako arazoak.

IAZ OSAKIDETZAKO BESTE ZAZPI ERAKUNDEK LORTU ZUTEN ZILARREZKO BIKAIN ZIURTAGIRIA

Debarbarrena, Debagoiena, Donostialdea, Goierri-Urola Garaia, Bidasoa eta Barrualde-Galdakao erakunde sanitario integratuek eta Santa Marina Ospitaleak eskuratu dute zilarrezko Bikain ziurtagiria 2016ko ebaluazio-prozesuan, eta Araba ESlak oinarritzkoa.

Ebaluazio-prozesuak lau ardatz ditu:

Gauzak horrela, azken ospitaleratzean, psikiatra euskaldun batek hartu zuen, eta, lehenengo aldiz!, pazientearen beraren haurtzaroko hizkuntzan hitz egin zion, pazienteak lehenengo hitzak esan zituen mintzairan, zeinaren inguruan eratua baitzuen nortasuna. Aurreneko aldia zen ama-hizkuntzan hitz egiten zion profesional batekin elkartzen zela, eta, antza, erosoago-edo sentitzen zenez, jasaten zuen larritasunaren berri eman zion: zeukan «ezinegona», haren hitzetan esanda.

Psikiatrak elkarrizketa klinikoa egiteko, DSM-5en proba pilotuetarako moldatutako elkarrizketa egituratu bat aplikatu zuen, hain zuzen ere, jatorrizko hizkuntzatik, ingelesetik (*Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders, Fifth Edition*) euskarara itzuli eta egokitutako bat. Emaizten arabera, pazienteak nortasunaren nahastearen funtsezko ezaugarriak zituen, zehatzago esanda: mugako nortasun-nahastea.

Psikiatrak tratamendua agindu zion eta eguneko zentro batera bidali zuen psikoterapia egitera. Harrezkero, sei hilabeteren buruan, pazientearen egoera egonkortuta zegoen, eta funtzionalki askoz hobeto. Oraingoan bai.

erakundearen komunikazioa eta irudi korporatiboa, kanpo-harremanak, barne-harremanak eta hizkuntza-kudeaketa.

Bigarren Euskara Planak zehazten duenez, Osakidetza erakunde guztiek zilarrezko ziurtagiria lortu behar dute plangintza-aldi honetan.

MINTZANET OSAKIDETZARA EKARRI NAHI DU EUSKARA- ZERBITZU KORPORATIBOAK



Mintzane aukera aproposa da euskara praktikatu nahi bai baina norrekin hitz egin ez dutenez. Mintzane erakundeak Internet bidez egiten da, binaka, bidelagunaren eta bidelariaren artean. Bidelagunak ondo daki euskaraz (ez du zertan titulurik izan), eta laguntza eskaintzen dio praktikatu nahi duenari. Bidelaria, berriz, euskara hobetzen ari da, bere maila hobetu nahi du eta, horretarako, beste pertsona baten laguntza behar du.

Proba pilotu batekin abiatuko da Mintzane Osakidetzan. 10 bikote osatuko dira (bidelaria izango dena eta bidelaguna) eta konpromisoa hartuko dute elkarrekin aritzeko: lanorduetatik kanpo, Skype bidez eta hiru hilabetez, astean ordubetez (guztira 12 ordu). Horretarako, beharrezkoa izango da Interneteko konexioa duen ordenagailua, tableta edo mugikorra izatea, baita mikrofonoa eta entzungailuak ere.

2017ko otsailerako dago aurreikusita proba pilotuaren hasiera. Izena ematekotan, norberaren zerbitzu-erakunde euskara-zerbitzuarekin jarri behar da harremanetan.



Euskara, garun-bizkortzaile gisa

xabier peña

Errehabilitazioko Eguneko Ospitaleko monitorea

Astean bitan euskara-eskolak ematen dituzte Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareak Barakaldon duen Errehabilitazioko Eguneko Ospitalean. Ekimen horrekin euskararen normalizazioa eta erabilera sustatzen denez, Osakidetza hala aitortu zion BOMSi abenduan Gasteizen egin zen 2. Aitormen Jardunaldian. Saioak oinarrizkoak izan arren, erabiltzaileentzat erakargarriak direla uste du Xabier Peña arduradunak.

Izatez medikua den arren, jaioterrian lan egiteko aukera sortu eta proba gisa hasi zen Xabier Peña monitorea Eguneko Ospitalean. Bertan ikusita-koak gustatu, eta lantegi horretan ari da oraindik ere. Erabiltzaileen egunak

arintzeko asmoz, jarduerak egiten dituzte; tartean, euskara-ikastaroa, hamar erabiltzaile dituen. Peña arduratzen da horretaz.

Noiz hasi zineten euskara-ikastaroarekin?

Duela lau urte hasi ginen. Ordura arte, beste jarduera batzuk genituen, baina orduan erabaki genuen pausoa eman eta Barakaldoko eguneko ospitaleko erabiltzaileei euskarazko ikastaroa eskaintzea.

Zer dela-eta hasi zineten euskara-eskolak ematen?

Garai hartan, lankide nuenarekin hizketan ari nintzela, jarduera interesgarria iruditu zitzaigun. Biok dakigu euskaraz, eta jardueren artean hau ere sar genezakeela iruditu zitzaigun. Esan eta egin. Biok hasi ginen, baina, lankidea orain ez dagoenez hemen, nik jarraitzen dut ikastaroarekin.

«Kontuan hartu behar da eguneko zentro honetara datozen erabiltzaileek gaixotasun kroniko larriak izan ohi dituztela eta askok narriadura kognitibo garrantzitsua izaten dutela»

Zenbat erabiltzaileek hartzen dute parte ikastaroan?

Gaur egun, hamar lagunek osatzen dute taldea, eta haietako erdiak hasieratik ari dira ikastaroan. Izan ere, parte hartzea boluntarioa da; erabiltzaileak ez daude etortzera behartuta. Nahi duena etortzen da, baina kontuan hartuta egunero-egunero 35 lagun inguru biltzen direla zentro honetan, haietatik hamar euskara-ikastarora etortzeak erakusten du ikastaroaren erabiltzaile-kopurua ona dela.

Zenbat irauten du ikastaroak?

Ikastetxeetako eskolek bezala, hamar bat hilabete. Hau da, irailean hasten dira eskolak, eta ekainera arte jarraitzen dute. Gainera, oporrak ere izaten ditugu: Gabonetan, Aste Santuan eta udan ez dugu eskolarik ematen.

Astean bi egunetan elkartzeko zaretu.

Bai, astearteetan eta ostegunetan. Hiru ordu-laurdeneko saio laburrak izan ohi dira, 14:30etik 15:15era. Ez da komeni eskolak asko luzatzea.

Zer gai lantzen dituzte eskoletan?

Egia esan, gure jarduerak oinarri-oinarritzkoak dira. Kontuan hartu behar da eguneko zentro honetara

datozen erabiltzaileek gaixotasun kroniko larriak izan ohi dituztela eta askok narriadura kognitibo garrantzitsua izaten dutela. Horregatik, eskola laburrak izateaz gain, dinamikoak izan daitezten saiatzen naiz, garuna martxan jartzearen. Batik bat, egunerokoan erabiltzen diren esapideak erakusten ditugu. Emaitzak eta erabiltzaileen asistentzia ikusita, ikastaroa erakargarria egiten zaiela ondorioztatzen dugu.

Nondik ateratzen dituzte materialak?

Interneten aurkitutako doako material didaktikoa erabiltzen dugu eskolak prestatzeko. Gidoi moduan erabiltzen dugu, eta, lantzean behin, material ludikoagoa sartzen saiatzen gara, abestiak edo euskararekin erlazioatutako beste jarduerak batzuk. Proiektorearen bidez, ikus-ariketak ere egiten ditugu tarteka. Gero, noiz ere behin, azterketatxoak egiten dizkiegu, eta horrek ahalegin berezia eskatzen die erabiltzaileei.

Zer moduzko euskara-maila dago?

Denetarik dago. Batzuek gehixeago egiten dute euskaraz, eta haietako bat euskaldun zaharra da, Ondarroakoa. Bera moldatzen da ondoena, zalantzarik gabe. Bestelakoan, oso mantso goaz. Gai-zerrenda luzea dugu, baina oraindik lau bakarrik ikusi ditugu. Etengabe berrikusten ditugu gaiak, eta oso gutxi aurreratzen dugu.

Erabiltzaileek gustura hartzen al dituzte eskolak?

Bai, eskertu egiten dituzte. Hala ere, kontuan hartu behar da ikastaroen zeregin nagusia ez dela euskara ikastea. Beste jardueretan gertatzen den bezalaxe, entretenitzea da helburu nagusia, eta pentsamendua martxan jartzea. Arazo kognitiboak dituzte, eta ondo datorkie.

Adin aldetik, nolako taldea duzue?

Ospitaleko erabiltzaile gehienak bezalaxe, helduak dira denak. Hala, gazteenak 35 bat urte izango ditu, eta zaharrenak 50.

Egunerokoan, erabiltzen al dituzte euskara zentro honetan?

Ez da ohikoa. Oso gutxi hitz egiten da euskaraz, eta, gainera, egiten den guztia oso oinarritzkoa izaten da, baita langileen artean ere. Normalki, agurrak eta horrelakoak soilik egiten ditugu euskaraz. Izan ere, langileetatik, terapeutak, sukaldarietako batek eta nik egiten dugu euskaraz, eta erabiltzaileetatik, berriz, bik. Haietako bat euskaldun berria da, baina ez da eskoletara etortzen. Oso pertsona azkarra da hura, eta unibertsitate-titulua du.

Bestelako jarduerak ere badituzte, ezta?

Bai, hala da. Euskara-ikastaroaz gain, erabiltzaileek beste mota bateko jarduerak ere izaten dituzte. Besteak beste, kirola praktikatzeko

«Noizean behin azterketatxoak egiten ditugu, eta horrek ahalegin berezia eskatzen die erabiltzaileei»

aukera dute. Hala, astean bi egunetan, Barakaldoko kiroldegira joaten dira igeri egitera, eta beste bitan futboleko jokatzera. Hemen bertan ere badute zerbait egiteko aukera; esaterako, hor dituzte bizikleta estatikoak eta ping-pong mahaia. Kiroletik kanpo, egongeletan denborapasak dituzte eta ostiraletan zinema-emanaldiak egiten ditugu, euskara-eskoletan erabiltzen dugun pantaila handia aprobetxatuta.

«ZER EGUNETAN?» ALA «ZEIN EGUNETAN?»

Galdera horri erantzun aurretik, esan beharra dago hiztun askok hirugarren aukera batez erantzungo luketela, «Ze egunetan?» esanaz, hori baita gehienok ahoz darabilguna: ZE.

ZE hori idatzian ere erabili izan da eta Euskaltzaindiaren Hiztegiari jasota dago, baina *lagunartekoa* dela adieraziz. Hizkuntza-maila neutrorako edo jasorako, beraz, bietako bat aukeratu behar gaude, hau da, ZER eta ZEIN galdetzaileen artean.

Aukeratu behar horrek, gainera, ustekabe harrapa litzake batzuen batzuk. Izan ere, ZEIN behar baino gehiagotan erabiltzen da eta ia-ia ematen du ez dagoela ZER galdetzailea izen baten aurretik jartzerik:

- Zein ordutan hasiko da ekitaldia?
- Zein distantzia dago Baionatik Bilbora?

Izenburuko galderara itzulita, hara zer dioen EIMaren *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak* liburuak:

«Galdera irekietan, ZER galdetzailea erabiltzen da; multzo jakin batetik bat bereizi behar dezan, berriz, ZEIN. Batzuetan, biak erabil daitezke, bakoitza bere esanahiarekin: galdera erabat irekiztat hartzen bada, ZER; era batera edo bestera zedarriritzat daukagun multzo bat bereizteko eskatzen dugunean, ZEIN».

Hori ikusita, argi dago erantzuna: bi aukerak dira zilegi, testuinguru zein den. «Zer egunetan da ebakuntza?» esango dugu, galdera irekia bada, eta «Zein egunetan da ebakuntza», aldiz, baldin eta egun-aukera mugatua bada, egunak aipatuak baditugu edo egun-multzo jakin batez ari bagara.

Dena dela, lehenago esan bezala, egungo testuetan –eta hizkeran ere– ZEIN erabiltzeko joera nabari da, testuinguruan horretarako arrazoirik ez dela:

- 'Zein izen jarriko zenioke salgaiari?' irakurriko dugu, 'Zer izen jarriko zenioke salgaiari?' beharrean.
- 'Ez nekien zein musika aukeratu' entzungo, 'Ez nekien zer musika aukeratu' beharrean.
- Zein koloretakoa da jantzi hau?, Zer koloretakoa da jantzi hau beharrean.
- Zein alde dago 'efektu', 'ondorio' eta 'oihartzun' hitzen artean? / Zer alde dago 'efektu', 'ondorio' eta 'oihartzun' hitzen artean?

Sarritan gertatzen da, gainera, ZEIN desegoki erabiltzea, ez bakarrik ZER galdetzailearen orde, baizik eta galdera egiteko bestelako moduen orde. Esaterako:

- Zein da berbereen egoera Marokon?
- Zein da bidea 'riesgo' eta 'peligro' hitzen artean bereizketa egiteko euskaraz?
- Zein da 'ala' eta 'edo' ren erabilera?

Halakoak beste modu batera adieraz daitezke:

- Nolakoa da berbereen egoera Marokon?
- Nola bereiz daitezke euskaraz gaztelaniazko 'riesgo' eta 'peligro' hitzak?
- Noiz erabiltzen da 'ala' eta noiz 'edo'?

Iturriak: [EHULKU](#), [IRALE](#).

agenda

2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA EGIAZTATZEKO EZOHIKO DEIALDIA

Ahozko probak: urtarrilaren 30ean eta 31n Portugaleten, otsailaren 2an eta 3an Donostian eta otsailaren 6an Gasteizen.

[☞ ahozko probara deitutakoak](#)

EUSTEN, SOCIEDAD DE HIPERTENSIÓN ARTERIAL Y RIESGO CARDIOVASCULAR DEL PAÍS VASCO ELKARTEAREN XV. URTEKO JARDUNALDIA: «BIHOTZA ETA DIABETESA: IRITSIKO ZAIGUNA».

Otsailaren 3an eta 4an, Bilbon, Bizkaiko Medikuen Elkargo Ofizialean.

[☞ webgunea](#)

CAF-ELHUYAR SARIAK

Lanak otsailaren 17ra arte aurkez daitezke.

[☞ webgunea](#)

IKERGAZTE 2017, IKERTZAILE EUSKALDUNEN BIGARREN KONGRESUA.

Otsailaren 28an amaituko da IkerGazte kongresurako artikuluak bidaltzeko epea.

Hautatutako artikuluak ISBNa izango duen argitalpen digital batean agertuko dira eta Euskal Herriko hainbat argitaletxerekin lankidetzan zenbait lanen bertsio hedatuak aldizkari espezializatuetan argitaratzeko aukera ere egongo da.

[☞ webgunea](#)

OEE, OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEAREN 27. OSASUN- BILTZARRA: «ANIZTASUNA OSASUNEAN».

Martxoaren 31n eta apirilaren 1ean, Iruñean.

[☞ egitaraua](#)

GIZA ESKUBIDEEN XV. ZINEMALDIA

Martxoaren 31tik apirilaren 7ra.

[☞ webgunea](#)

